

Goizueta: arrukabordak auzitan (1795-1799)

PATZIKU PERURENA*

Gorreneko nagusiak, Tomas Joxepe Perurenak, ardiborda egiteko baimena eskatu eta, Herriak eman, beste guziei bezalaxe, Olasoko eta Marijoangoneko ardiborden garaikaldean bertan: “mas abaxo de los menerales de Chirringuillo”. Beste pasarte batean, berriz, “en el paraje que llaman Garaizar” esaten da. Edozein moduz, hantxe, gaur Gorreneko ardiborda denekoan bertan.

Osabattikia zeukan Gorrenekoak maizter Marijoangonen: Bernardo Perurena, 70 urteko aitona. Eta Olasoko nagusia, berriz, Juan Bautista Uitzigen, Alkaintzin guziko artalderik hoberena zeukan artzaia. Biek harrapatzen zituen berta samarretik Gorrenekoak egiteko asmoa zuen arrukabordak, baina, nolana ere, onez onera behintzat, elkarrekin ongi moldatzeko moduan. Ezin eraman, ordea, besteren onik!...

Hala, Marijoangoneko maizter xaharrak nagusia bero arazi eta, hor non erabaki duten Olasokoak eta biek Gorrenekoari borda egiten galeraztea. Har-taxetik piztuko zen auzia¹, herriko artzai guziak beste lau urtez, hara eta hona, dantzan paratu zituena.

Baina ikus dezagun pausoz pauso, auziak merezi du eta²:

En la villa de Goizueta a diez y ocho de Diciembre de mil setezientos noventa y zinco, ante mí, el esno. abajo nombrado, pareció presente *Juan Baupstista Huici maior*, vecino de esta villa de Goizueta, y dijo que en los Tribunales Reales de este Reino se ofrece seguir causa contra *Juan Baupstista de Unchalo y Thomas Joseph de Perurena* vecinos de la dicha villa de Goizueta, sobre que se les *prohíba y embaraze* a éstos *la construcción* de un cubierto o *Borda de Acubillar* ganado en el paraje llamado *Garallazar*...

* Idazlea.

¹ Nafarroako Artxibo Handia, sig.: 193861, urtea: 1795-1799, orriak: 148.

² Aurreneko orrian eta orri atzean.

Juan Xabier de Ibero eskribauak idatzia duzu hori, testigutzat bere aurrean zituela Juan Antonio de Goizueta herritarra eta Braulio Esteban de Echarri aresoarra. Honek bakarra sinatu zuen, goizuetarrak ez baitzekien.

Hurrena, berriz, hauxe esaten du Juan Ramon Esparza eskribauak 1796ko martxoaren 3an: "...y aora perjudicando a mis partes, intenta Juan Antonio de Zubiri *sin ser vecino* sino meramente *inquilino* construir *otra Borda* pegante". Horrek esan nahi du, Gorrenekoa ezezik bazirela artzain gehiago ere elkarren espan zebiltzanak, nork bere aldetik abokatu bana hartuta. Honatx nola³:

En la Ciudad de Pamplona a catorze de marzo de mil setezientos noventa y seis ante mí, el esno. abajo nombrado, pareció presente *Xabier Martínez de Espronceda*, Prior del tribunal eclesiástico de este obispado marido y conjunta persona de *Doña Maria Bernarda de Yrisarri*, y dijo que en concurso de Juan Bautista Huici *se ofrece a litigar contra* Juan Antonio de Zubiri.

Pedro Barrikartek idatzia duzu aurreko pasarte hori, testigu Joakin eta Fermin Barrikarte eta Espronceda jauna bera zituela. Eta, gero ikusiko duzun bezala, hor azaldu den Juan Antonio Zubiri hori Ontxariko nagusi zen. Handik lau egunera, martxoaren 7an, emanen zion aditzera Goizuetan bertako eskribauak, Joakin Inazio Arribillaga jaunak: ez hasteko oraindik ardiborda egiten, Iruñetik kexa sartu zutela eta.

Hurrena, 1796ko apirilaren 25ean, Joan Bautista Untxalo eta Tomas Jose Perurena, aitagarreba eta suhia, Leitzan presentatuko ziren Lazaro Huarte eskribauaren aurrera, testigutzat Bernardo Perurena eta Atanasio Intxauspe zituztela⁴:

...y proponen que en la Real Corte de este Reino se les ofrece seguir pleito contra Juan Bautista Huici y Xabier Martínez de Espronceda vecino de la Ciudad de Pamplona, en razón de que a los otorgantes no se les *enbarace la construcción de una borda* de acubillar ganado en los *montes comunales y libres* de dicha villa, mediante la concesión y señalamiento de terreno que a precedido en la forma acostumbrada.

Marijoangoneko nagusi zaharra, Don Joan Irisarri, ordurako hila zen, eta haren alaba bakarrarekin⁵ ezkontzean, heredentzia guzua Espronceda suhiagana iragoa. Horregatik ageri da, auzi honetan, Marijoangoneko ondasun guzietan jabe⁶: "...dice que posee en dicha villa de Goizueta la *casa y casería* llamada *Marijoangonea* y sus pertenecidos⁷ como vecindad". Eta Joan Bautista Huizi Olasokoak ere, bere etxearen jabe izatean, halatsu berean dio: "...que posee y goza otra borda próxima".

Baina, gure Thomas Joseph Perurena ez omen dela etxejabe, eta ez omen duela inolako herritar eskubiderik, ardibordarik inon egiten hasteko. Gezurra ordea, Joakin Barrikarte prokuradoreak laster erakutsiko zien gisan⁸:

...que se debe declarar no haber lugar a dicho pedimiento, porque mis partes, tienen derecho de vecindad por su casa denominada *Sutequichar* y

³ Hirugarren orrian eta ondokoetan

⁴ Laugarren orrian

⁵ Gero 8.orrian: *Doña M^a Bernarda hija única de Don Juan de Irisarri*.

⁶ Seigarren orrian

⁷ Gero ere, behin eta berriz hala baitio, 68 orrian, esate bateko: *Bernardo Perurena, inquilino del caserío de Marijuangonea, propio de Xavier Martínez de Espronceda*.

⁸ Ib., 13 orrian: dokumentu hau atzenezan «*Licdo. Hormaecha*» delakoak sinatzen du.

contribuyen y pagan las derramas y demas cargas por lo que tienen derecho a construir la *Borda* que intentan siempre que no sea en perjuicio de tercero y precediendo la correspondiente facultad de la villa, cuias dos circunstancias se verifican en mis partes...

Horrez gainera, esaten du, egin nahi den bordatik Marijoangonekora “ochenta estados” baizik ez direla, eta Olasokora berriz “sesenta y ocho” eta hori nahiko eta sobra dela artzaiak elkarrin inolako eragozpenik sortu gabe ibiltzeko. Eta gainera, Marijoangonekoak eta Olasokoak, “solo distan entre si sesenta y siete estados”. Beraz, garbi ikusten dela, beren artean ere betetzen ez dituzten legeak eskatzen ari direla auzoari.

Ez da esaten garbi, baina, badirudi Gorreneko nagusiak, Tomas Jose Perurenak, ezkontza bidez emaztearen heredentziari esker bereganatua zuela *Sutegizar*, eta sortzez honen borda (baserria) zela dirudi *Gorrene* bera ere.

Halaxe berean egina zen *Franco*. *Xavier Martinez de Espronceda* jauna ere Marijoangoneko nagusi, emaztearen heredentziari esker, eta jauntxo honek sartuko zuen kexa Herriko Etxean, bere eskuz idatzirik⁹:

Franco. Xavier Martinez de Espronceda Prior del tribunal eclesiástico de este obispado con el debido respeto espone, que con el motivo de habersele conzedido por V.S. mediante señalamiento de los Srs. del Gobierno del año anterior a *Thomás de Perurena* dueño de la Casa o *Casería de Gorrenea*, el correspondiente *suelo* para *construir* Cubierto o *Borda* de *Acubillar ganado*, que en *lengua bulgar bascongada* llaman *Arrucaborda* en el paraje llamado *Chirringuillo*, y al par de la *Arrucaborda* del caserío de *Marijuangonea* propio del suplicante, como marido de *D^a. Maria Bernarda de Yrisarri* hija y subzesora de *Don Juan*... hizo recurso a la Real Corte en concurso de *Juan Baup^ta. Huizi*, como *dueño* de la Casa y *Casería* de *Olaso*, que tiene así mismo inmediata su *Arrucaborda*, solicitando la *ynhibicion ordinaria*, que obtubieron con el auto regular... a cuya consecuencia salió a la causa dicho *Perurena*, y sigue en este estado animado...

Deus baino lehen datu filologiko bat. Hona arte “borda” deitu zaionari, orain “arrukaborda” deitu zaio, eta baita hemendik aurrera ere, halaxe deituko zaio, dokumentu osoan barrena. Nondik sartu ote da izen berri hau eskuizkribu honetara, Goizuetako usariotik edo eskribauen bidez beste nonbaiteko usariotik? Nik uste Goizuetako usuario bizitik. Garaitsu honetan, 1750-1850 urteak bitartean, maiz azaldu baitzait “arrukaborda” hitza Goizuetako dokumentuetan. Baina, zehatz-mehatz ezin esan, noiz sortu, hedatu eta berriz atzera galdu zen. Ez baitut santa sekulan inor aditu “arrukaborda” esaten, ez Goizuetan ez bestetan; “ardiborda” bai askotan; baina “borda” halare, maizenik¹⁰.

Izenak izen, bihur gaitzen atzera, auziaren iturrira. Herriko Etxera joanda, 1795ko urriaren 11an egin omen zuen bere eskaria Tomas Jose Perurena Gorrenekoak, esanez: “que *desea construir una arruca-borda* en la zima llamada *Chirringuillo*, algo *más abajo de los minerales* de dicho nombre de *Chirringuillo*”. Eta ez hori bakarrik. Baita, etxeko alorra hazitzeko eskaria ere egin omen zuen: “también desea el suplicante *estender la pieza de pan traer* de

⁹ Ib., 22. orrian.

¹⁰ Ikus *Dakiguna Ikasten* liburuko 161 orrian izen honi buruzko iradokizun batzuk.

su *casería* de *Gorreneá*, reduciendo a cultivo un poco de terreno libre que hay a la parte superior de la dicha pieza pegante a la casería *Gorreneá*”.

Bi eskeriak onartu, eta handik hilabete pasatxora, 1795eko azaroaren 25ean joan ziren markatzera herriko gizonak. Aurrena Txirringilloko bordaren orubea markatu zuten¹¹: “al par de la Arruca-Borda¹² del caserío de Marijuangonea, cuio suelo demarcado a Thomas Perurena contiene a lo *largo quarenta y ocho codos* y a lo *ancho diez y seis codos*”. Eta handik honuntzekoan, Gorreneko alorburuan, jabeak eskatutako gisan, beste zerresta bat markatu omen zioten, berehala labakitu, luberritu, eta alor bihurtzeko: “que tiene de largo su tirante, *163 codos*, y es afrontado con el *Castañal de Charpa*”. Lehengo segida berberean, beraz, bururen buru, Txarpako Gaztainadia jo arte. Halaxe haziko zuen etxeko alorra, goien goienetik, Gorreneko nagusiak.

Ardiborda egiteko asmoak, ordea, sesio latzagoak ekarriko zituen auzoen artera, beste urte batzuetan. Artzain asko, ordurako elkarren espan baitze-bilen, eta ezin eraman besteren onik. Sartu baziren, sartu ziren istilutan. Ateratzen gero lanak!... Goizuetako Udalak berak ez baitzekien zer egin, gai honi buruz inolako araudirik ez izatean. Atzenerako, *Baztango Ordenantzak*¹³ ekarri behar izan zituen, artzaien arteko espak sortutako gatazka latz hartatik aterako bazen. Behar bada, Tomasen bereran aginduz. Iruritatik zabalduak baitziren Perurenatarrok, Leitzatik Goizuetara bitarte honetan. Hara Ordenantza haietatik Goizuetako arrukaborden auzia konpontzeko asmoz hartutako kapitulu batzuk¹⁴:

Capitulos de Ordenanzas del Valle de Baztan confirmados por el Real Consejo en 6 de Junio de 1696 que hablan sobre ejecución de bordas: (...)

Capt. 28: Ytem que las bordas y heredades que se hicieren de oy en adelante en lo comun de dicho valle por los vecinos, hayan de ser y sean *dejando doscientos y cincuenta estados de distancia de las bordas y heredades antes hechas* y más cerca no se puedan hacer, pena de demolimiento

Capt. 62: Ytem... *que hay muchos vecinos que tienen en el comun fabricadas a quatro, cinco, seis y mas Bordas para el alvergue y acubillamiento de sus rebaños*, sin duda *por enbarazar a otros* vecinos.

Horra Goizuetako artzaien auzia bete betean harrapatzen zuten bi kapitulu, 1696an Baztanen finkatuak. Baina, ehun urteren burura, nola aplikatu tajuz, ordenantza zehatz haiek, Goizuetako larre piko haietan, ongi jakinik Baztango lurralde zelai eta zabal haiekin deus ikusi haundirik ez dutela?... Ez, alde izugarria zegoen batetik bestera. Begira bestela, honako beste pasarte honetan, artzai bakoitzari lau borda baino gehiago ez egiteko nola eskatzen zitzaien:

...dos para el tiempo de la paricion de las ovejas, la tercera para el tiempo del otoño, y la quarta en la cercanía de los lugares para hacer avono y servirse de él para beneficiar las heredades.

¹¹ Ib., 24 garren orri atzean.

¹² Pasarte berean aurreraxeago: *borda de acubillar ganado que en lengua bascongada llaman Arruca-Borda*.

¹³ Ib., 30-32 orriak.

¹⁴ Nafarroako Artxibo Handian ezezik, Goizuetako Udal Artxiboan ere badira. Ikus lan honen amaieran faksimilak.

Hori ametsa zitekeen Goizuetan. Baina, ikus iratzea eta gorotza erruz egiteak nolako inportantzia zuen: hartarako bakar bakarrik borda bat egite-rainokoa. Halare, kapitulurik politena, bordaren jabe egin arteko fasea erakus-ten dueneko hauxe duzu, nire irudituan:

Capt. 64: *quien quisiere hacer Bordas segun arreglamento de arriva, haya de señalar el puesto para ello poniendo seis punzones o pilares de ma-dera, los dos para mantener el peso del cavallette, y los cada dos de los lados para mantener los vertientes, y hacer cubierto con algunas tablas de madera, que se conozcan de servir de borda, y desde el día que así se-ñalare dentro de dos años la haya de acabar de fabricar, y no lo haciendo y pasados los dichos dos años qualquier vecino lo podrá apropiar para sí.*

Horretan sinale bordagile asko ez zela batere xuhurra izanen, baina bai zabar eta utzi samarra, artzaina askotan ohi bezala. Zena zela, Baztango lege zahar horiek ikusi ondoren, gatozen gure auzira. Ordenantza haietan¹⁵ esaten omen zela, arrukaborda batetik bestera gutxienez “dos cientos cinquenta es-tados” inguruko tartea behar zela. Gehixko Goizueta baterako. Edozein mo-dutan, bordagileen erantzuna klaroa eta zorrotza izan zen, berriz ere: Bazta-nen badela mila estatuko distantzia emateko haina leku on, baina hango ereduak ez duela balio Goizueta bezalako herri malkartzu baterako, diote To-mas Joxepe Gorrenekoak eta bere aitagarrebak¹⁶:

que en aquel valle hay cabida para conceder a cada vecino mil esta-dos... pero es bien estraño que eso sirba de regla en la villa de *Goizueta*, y si se quiere arguir con la practica de otros pueblos, que sean los más in-mediatos, como son los de *Leiza, Ezcurra, Saldias, Zubieta, Arano*, donde se encuentran *Bordales* que distan entre si mucho menos que en el lugar litigado.

Auzo herri horietan ba ote zen, ordea, ardibordak egiteko araudirik? Zer edo zer baliteke, baina, ordenantza zehatzik ezetz uste nik. Kontua da, ibili eta buelta, atzanean arrazoi eman behar izan ziotela Gorreneko bordagileari, nahiz kalbario dezentea pasarazi. Hona Marijoangoneko eta Olasoko nagu-sien prokuradore berriak, Joakin Apeztegia jaunak, bere eskuz idatzitako hi-tzak¹⁷:

... se declara no haber lugar al pedimiento de Juan Bautista Huici y Xavier Martinez de Espronceda y se manda que estos ny otra persona *no impidan ni embaracen* a Juan Bautista Unchalo y Tomás Joseph Perurena *la construcción de la borda* en el sitio señalado el 25 de Noviembre de 1795...

Beste herritar guzien eskubide berbekin hasi baitzen ardiborda egiten Gorreneko suhia. Aurkariak aitortzen diote hori egia dela, baina, uka berriz ere: horrek ez duela zuzentzen, ordea, Herria gaizki egiten ari den gauza: bor-da batetik besterako distantzia eta beste neurri batzuk kontuan ez hartzea, alegia. Eta horrez gainera, Garaizarko hiru bordak elkarrengandik arrunt ber-

¹⁵ Ib., 33. orrian.

¹⁶ Ib., 35-36 orrietan.

¹⁷ Ib., 42 orrian.

tan geldituko liratekeela eta hiru bordatako artaldeak alatzeko hagitz leku gutxi inguruan:

porque el sitio en que se hallan las bordas es de muy corto ámbito y extension *por estar muy próximo al termino* y jurisdiccion *de Leiza*, en la que no pueden los de Goizueta pastar y acubillar sus ganados.

Gezurra hori ere. Ez behintzat egia osoa. Atzenean, alde bateko eta beste testiguak bildu, eta tajuzko informazioa biltzea izanen zela hoberena erabaki zuten Iruñetik. Hara Marijoangoneko eta Olasoko nagusien prokuradoreak, Joaquín de Apezteguía jaunak, prestatu zuen gidoia¹⁸:

... alego, y provar entiendo, la necesidad de lo contenido en los artículos siguientes:

Primeramente que la villa de Goizueta acostumbra señalar sitios para arrucabordas a los vecinos que los piden, *sin mas formalidad que la de una vista ocular* por peritos que ella misma elige, pero *sin citar a los dueños de las arrucabordas inmediatas*, de que resulta continuamente el seguirse a estos perjuicios con mucho bulto con semejentes señalamientos, como es cierto y diran los testigos...

2. Ytem que el día que se conceden tales permisos y señalamientos *dan a los del Reximiento* los vecinos agraciados su *propina y comida*: como es cierto público y notorio y diran los testigos

3. Ytem que siguiendo la villa esta irregular costumbre, señaló a *Tomas Josef de Perurena*, parte contraria, el 25 de Noviembre de 1795 sitio para una *arrucaborda* en el paraxe llamado *Chirringillo* abajo de los *minerales* de este nombre y *al par de la arrucaborda del caserío de Marijoangonea*, propio de dicho Espronceda. mi parte...

4. Ytem que desde este sitio *hasta la expresada arrucaborda de Marijoangonea y la de Olaso*, es *muy poco distancia*, por cuya razon necesariamente ha de experimentar muchos perjuicios a causa de *reducirseles su pastura* y terreno...

5. Ytem... que por aquellas proximidades *tienen tambien señalado sitio para arrucabordas* *Fermin Antonio Alsua, Juan Bautista Huici y Juan Antonio Zubiri*, y en el momento que estos llegasen a construir las se verian las de mis partes tan reducidas que apenas tendrian sus ganados bastante sitio para pastura y necesariamente se *estorbarian* unos y otros en las *entradas y salidas*...

6. Ytem que el terreno en que se hallan las arrucabordas de mis partes es de muy corto ambito y extension *por estar muy próximo a la jurisdiccion de Leiza*, en la que los de Goizueta *no pueden pastar y acubillar sus ganados*, de modo que *si se verificase el caso de construirse la contenciosa borda de Chirringillo* quedaría sumamente reducido y sin disposicion para extenderse mas, cuyo perjuicio se aumentaria si los expresados Alsua, Huici y Zubiri *fabricasen las arrucabordas que ya les estan concedidas*, en cuyo caso *se encontrarían 6 o 7 a muy poco distancia* siendo así que *las 24 que hay en todo Goizueta* se hallan todas muy distantes a excepción de tres¹⁹ que son las únicas que estan algo más proximas...

7. Ytem... que en la villa Goizueta *hai otros parajes muy a proposito para arrucabordas*, sin tocar el de Chirringillo, en los cuales podrian las contrarias construir las que solicitan, con tanta comodidad como en el dicho de Chirringillo, y sin perjudicar en cosa alguna a las arrucabordas de mis partes.

¹⁸ Ib., 56-58 orriak.

¹⁹ Espide ondokoak, gero hobeki ikusiko duzunez.

8. Ytem que de todo lo relacionado se infiere *la ligereza con que ha procedido dicha villa en el señalamiento*, y la necesidad de corregir la costumbre y señalar por medio de unas ordenanzas la distancia que deve mediar de borda a borda, haciendose en qualquier caso con citación de los dueños de las inmediatas al paraje donde se pretende el terreno, pues de otra suerte es muy temible que con el tiempo lleguen a inutilizarse todas²⁰, por el interes que tienen los del reximiento en acceder a tales solicitudes.

9. Ytem que *quando Juan Bautista Huici solicitó de la villa sitio para construir la arrucaborda* que en el dia posee, *se opuso inmediatamente la cuñada de Don Juan de Yrisarri, Maria Josefa de Perurena*, ya difunta por el perjuicio que de ello podría resultar a la del susodicho, con cuyo motivo suspendió la villa el señalamiento y no se lo concedió hasta que obtuvo el permiso de dicho Yrisarri, quien se lo dio con la expresa condicion de que no le havia de hacer daño ninguno a su Borda en alechos (sic) y demas provechamientos.

Licenciado Subiza y Armendariz.

Luze samar joan izanen zaizu puntu guzian kontua, baina hortxe daude auzi honen zainik bihurrienak. Horien inguruan joanen baita hemendik aurrerakoa. Horregatik eskaini nahi izan dizikizut. Horrek ez du esan nahi, ordea, hor esandako guzia egia hutsa denik. Ez horixe! Horko okerririk nabarrienak zuzenduz, abudo eman baitzion aurkariari erantzuna Gorreneko suhiak, artikuluz artikuluz²¹:

Primeramente que en la villa de Goizueta para el señalamiento de sitios destinados a arrucabordas *no se nombran ni se han nombrado jamas peritos*, como con incertidumbre lo suponen las contrarias, si no que siempre lo han hecho los Rexidores por si mismos.

2. Ytem que aunque es cierto que el dia que se conceden tales permisos y señalamientos dan a los quatro Rexidores de que se compone el Reximiento de dicha villa, los vecinos agraciados su *propina* que es de *quatro pesetas a cada uno y comida*, tambien lo es que por eso siempre que contemplan ser la gracia que se solita en perjuicio comun o particular *se les niega*, como se ha verificado repetidas veces en Goizueta, y sin embargo de haver precedido por dichos Rexidores todas la diligencias legales que en tales casos se acostumbran, no hallaron reparo en demarcar el sitio que pedian mis partes para arrucabordas...

3. Ytem que tambien es ajeno a la verdad lo que se alega en el articulo 6 contrario, porque el ganado ovejuno de la villa de Goizueta *puede pastar los terminos de Leiza y los gozan* en la mayor parte del año, como el inquilino de Espronceda, parte contraria, y otros varios vecinos, *sin que por esa razon paguen* a el referido de Leiza *sino un muy corto estipendio* segun el número de cavezas de ganado que cada uno mantiene en aquel territorio

4. Ytem igualmente se falta a la verdad por las contrarias en su artículo 7, en suponer que en la expresada villa de Goizueta hay otros parages muy a proposito para arrucabordas sin tocar el de Chirringuillo, pues lo cierto es que *en el termino de Anizlarrea* que compone la mayor parte de

²⁰ Esajerazioak beti esajerazio. Ez baita izan halako desastrerik.

²¹ Ib., 61-62 orriak.

la jurisdiccion de dicha villa *se les prohibe* a los vecinos de ésta, *no tan solamente la construccion de Bordas de acubillar ganado, sino tambien la de una choza de pared a donde poder acoger el pastor* que esta cuidando esta especie; y el restante denominado la endrecera de *eliverria*, sobre ser de corto ámbito está situado de muchos seles en donde *no se puede fabricar Borda alguna*, y por esa causa echaron mano mis partes del enunciado parage de Chirringuillo por no haber otro que pudiera resultar menos daño...

Licenciado Hormaechea.

Iruñetik Goizuetara etorri 1798ko buruilaren 18an, eta Olasoko nagusiarri hartu zion testigantza Domingo Santos de Urreta jaunak. Hara zer esan zuen puntuz puntu Olasoko artzaiak, hirutan hogeita bi urte eder bizkarrean zituela²²:

1º. Al artículo primero dijo que en esta villa la costumbre que ha avido sobre señalamiento de sitio para construir arrucabordas, a sido la de *dar-se memorial por los pretendientes en Junta* de vecinos, los cuales *dan facultad a los del Reximiento* para que no habiendo perjuicio hagan el señalamiento por si mismos...

2. Al segundo dijo es cierto que hara como unos *once años* habiendo solicitado el que absuelbe sitio para construir la arrucaborda que en el dia posee, *presentó memorial* para ello en Junta de vecinos, y aunque estos dieron facultad a los del Reximiento para hazer el señalamiento en la forma acostumbrada y fueron a hazerlo, *se opuso Maria Josefa de Perurena cuñada de Don Juan Yrisarri ya difuntos*, por el perjuicio que este podría tener en su arrucaborda del caserío Marijoangonea propio en el día de Franco, Xavier Martinez de Espronceda su yerno, por cuyo motivo suspendio el Reximiento el señalamiento y concesion de sitio que el que absuelbe pretendía, hasta que éste obtuvo permiso y facultad de Yrisarri para construirla y en su virtud la hizo, y aunque *tambien hiziron señalamiento de sitios* para ese efecto los del Reximiento a *Juan Franco. Salaberria y Fermin de Ercazti* vecinos de esta villa, como es a *Salaberria en Azkongarate* y a *Ercazti en Arribanarretan*²³ no las an contruido *por haberseles opuesto* segun le pareze *Don Juan Carlos Araizaga* dueño de la *Herreria de Aldunzin*...(eta auzigai den honetan ere, berdintsu jokatu dutela errexidoreek)

3. Al tercero dijo que el absuelbe, como *dueño* del caserío *Olasocoborda*, y tambien como los de los titulados *Marijuangonea* que lo es de *Espronceda, Bordacho, Baztanenea, Bordaberri, Onchari, Ayarra, y Capero*, gozan con su ganado *obejuno* de día tan solamente en los *terminos* de la villa de *Leiza* pagando a la misma entre todos ellos anualmente *diez y seis ducados* a proporcion del numero de cabezas que de cada uno entra en el erbagó, siendo las de él ciento y veinte, el de *Marijoangonea* ciento, el de *Bordacho* sesenta, *Baztanenea* otras sesenta, *Bordaberri* cinquenta, *Onchari* sesenta, *Ayarra* ciento y veinte y *Capero* no sabe quantas, todas sobre poco mas o menos, y para adelante pretende dicha villa de Leiza se le paguen *treinta ducados* por el goze.

4. Al quarto y último dijo es cierto que el termino de *Anizlarrea* comprende la maior parte de la jurisdiccion desta villa, y tambien que lo restan-

²² Ib., 70-71 orriak.

²³ Ikusten lokatiboa bietara, erdaraz eta euskaraz? Zenbat holako gure testu zaharretan!

te que queda se denomina la endrezero de *Eliberria*, aunque tiene bastantes seles, y en ellos ni en Anizlarrea *no se pueden construir arrucabordas*, pero sin embargo ay todabia parajes mui a proposito sin tocar en el *Chirringuillo* para fabricarse sin tanto perjuicio *la arrucaborda contenciosa* como en los llamados *Yllasoro, Biasoro, y Guriacopartida...* y que lo dicho es verdad por el juramento prestado... Ante my Domingo Santos de Urreta, rezibidor.

Ikusi bezala, beti puntu beretsuen inguruan dabil auzia. Beraz, errepika joaz gauzak lehenez gain luzatzen ari gabe, ikus dezagun gutxienez Olasoko eta Marijoangoneko artzaien aldeko testigui noiz²⁴ hartu zien hitza, Iruñetik etorri eta Goizuetan bertan, Domingo Santos de Urreta eskribauak²⁵:

...oi este dia²⁶ a Pedro Felipe de Anzizar y Bernardo Perurena, el catorce a Pedro Josef Eguiamendia, Juan Franco. Perurena, Fermin Antonio de Eguiamendia, Franco. Escudero, el dia quince a Miguel Antonio de Apecechea, Lorenzo Goizueta, Pedro Antonio Goizueta, Josef Ignacio Arribillaga, el dia diez y ocho a Agustin Goizueta, y el diez y nueve a Juan Antonio Goizueta, Juan Agustin Huizi, y Gabriel Josef de Huizi.

Beste aldeko testigui, berriz, Gorreneko suhia Tomas Joxepe Perurena eta Juan Batista Untxo aitagarrebaren aldeko, 1798ko buruilaren 17an hasita, egunegun, holaxe hartu zien hitza²⁷:

...oy este dia a Juan Josef Ziburi, Juan Baupita. Escudero, Fermin Manuel de Huizi, Juan Agustin de Narvarte, Josef Antonio de Loyarte, y Fermin de Erviti, y el diez y ocho, a Bernardo de Arozena, Fermin Antonio de Alsua, a todos los quales y a cada uno de ellos les recibí juramento en forma devida de derecho, de que doy fee.

Horretarako Iruñetik nola etorri zen ere esaten digu, Domingo Santos de Urreta jaunak, auzi honetan beren testigutzat eman zuten Goizuetarrei hitza hartzerat²⁸:

... salí el día de hayer de la Ciudad de Pamplona y a la ora de las doze de oy he llegado a esta villa, nevegando diez leguas de jornada, que con el regreso serán veinte.

Bi buelta egin zen Goizuetara, ditxosozko arrukaborden auzia zela eta: 1798ko buruilaren 12an aurrenekoa, eta handik bost egunera, buruilaren 17an hurrena. Eta hala dio lanaren akaberan:

Certifico que en practicar la diligencia de medición precedente inclusa la jornada me he ocupado quatro oras en fee de lo qual doy y firmo el parte en Goizueta, en sobre dicho día²⁹ mes y año.

Alde batekoen eta bestekoen testigutzak jaso eta aztertu ondoren, hara zer erabaki zuen atzenean Iruñeko Kontsejuak, istilu guzien buruan³⁰:

En *Pamplona*, 17 de *Julio de 1799*, miercoles, en audiencia, el consejo real pronunció... para evitar en adelante toda incertidumbre, exceso y per-

²⁴ 66 or. : denen hitzorduak, banan banan.

²⁵ 73 orritik aurrera.

²⁶ 1798ko buruilaren 13an.

²⁷ 110 orritik aurrera.

²⁸ 67 or.

²⁹ 1798ko buruilaren 19an.

³⁰ Ib., 148 orria.

juicios en las concesiones de terrenos *para construir arrucabordas*, en el termino preciso de quince días se junten la villa de Goyzueta y sus vecinos en la forma acostumbrada y traten y formen las correspondientes *ordenanzas* sobre el particular, *concluyéndolas en dos meses*, y presentándolas en Nuestro Consejo para su aprobación.

Halaxe egin zuen Goizuetako Udalak: 1799ko buruilaren 8an batzarrean bildu eta, honako erabaki hauxe hartu, Iruñetik agindu bezalaxe³¹:

En la villa de Goizueta, casa y sala de ayuntamiento de la misma, a ocho de septiembre de mil setecientos noventa y nueve, ante mi el Esno Real se juntaron y combocaron, mediante publicata a toque de campana, según lo tienen de uso y costumbre, a tratar y deliberar cosas tocantes al buen regimen y gobierno, los Sres. Don Juan Baupt. Gregorio de Minondo, Juan Phelipe de Altamira, Martin Josef de Zala, Juan Josef de Berroeta, y Juan Baupt. de Berroeta, *Alcalde y regidores* de esta villa el presente año, Don Joaquin Ignacio Minondo, Miguel Antonio Goizueta, Pedro Goizueta, Fermin Manuel de Huizi, Pelayo de Arozena, Jacobe Minondo, Joseph Joaquin de Huarte, Agustin de Escudero, Agustin Fco. de Arratibel, Agustin de Huici, Martin Josef de Zubiri, Juan Fermin de Loiarde, Fco Ignazio de Yñarrea, Juan Fco. Salaberria, Josef de Narvarte, Josef de Zuviri, Ignazio de Huici y Huarte, Juan Baupt. Escudero, Fco. Antonio Minondo y Berroeta, Agustin Unchalo, Ignacio Ziriaco de Narvarte, Francisco Escudero, Juan Antonio Arrizabalo, Agustin de Goizueta y Juaquin Manuel de Huici, todos *vecinos* de esta villa, concejo hacientes y celebrantes, los presentes haciendo y votando por los ausentes, por quienes prestaron voz y capcion de rato grato et judicatum solbendo, de cuia disposizion les entere yo dicho esno. de que doi fee y estando asi juntos, dijeron que el dia veinte y cinco de agosto ultimo pasado se les notifico (...) un despacho de traslado de sentencia que se pronuncio por el Real y Supremo Consejo de este Reino en diez y seite de Julio ultimo pasado, en causa seguida sobre inivizion de construir una Arrucaborda, por Juan Bautista de Unchalo, vecino desta villa, entre este y contra Juan Bautista de Huici y Xavier Martinez de Espronceda, por cuia sentencia se sirve mandar dicho Real y Supremo Consejo que en el termino de quince dias se junte esta villa y sus vecinos en la forma ordinaria y formen las correspondientes ordenanzas para evitar toda incertidumbre exceso y perjuicio en las concepsiones de terrenos para construir Arrucabordas en adelante, y se remitan a dicho Real y Supremo Consejo para aprobarlas, y cumpliendo con lo asi mandado, dijeron dichos señores concejantes *que en adelante no se le conceda a ningun vecino de esta villa terreno para construir Arrucaborda o Cubierto para Acubillar ganado en menos distancia que ochenta estados que se deveran medir desde la mas proxima o cercana Arrucaborda o Cubierto para Acubillar ganado que antes se hallase construida* por vecino de esta villa.

Horixe beste erabakirik ez zuten hartu: borda berririk egiterakoan, gutxienez lehengotik *laurogei estatura* egin behar zela. Alde ederra, Baztango Ordenantzak eskatzen zuen “dos cientos cinquenta estados” harekin konparatuz. Hirutik bat baino gutxiago. Edozein modutan, *estatu* batek garai har-

³¹ Goizuetako Udal Artxiboan, Erabakien Liburuan. Ikus atzenezan faksimila.

tan zenbat metro zituen xuxen jakitea, ez da erraza, era askotako neurriak ageri baitira gerozko hiztegi eta entziklopedietan.

Zena zela, Goizuetako Udalak, hainbeste istilu ibili ondoren, eta Iruñetik preziski agindu ondoren, badirudi ez zuela ardibordak egiteko *ordenantza* zehatzik finkatu atzenean; nik ez dut behintzat inon aurkitu halakoren arrastorik. Horrek esan nahi du, borda batetik besterako distantzia zorionekoa, “ochenta estados”, behin betikoz finkatze hutsarekin konpondu zituela istilu guziak. Izanez ere, huraxe izan baitzen, borda batetik besterako distantzia dixosozko huraxe, artzaien arteko espa guziak sortu zituen. Baina, errespetatu ote zen neurri hori, geroztik egindako arbibordetan? Nik ezetz uste. Azkongarateko ardibordei begiratzea aski. Elkarrengandik arrunt bertan egin baitziren, besteak beste, Axerrekoa, Alkaxarrekoa, Txaponbordakoa, eta Illagorribordakoa.

Bukatzeko, ezin gordean utzi Goizuetako *Arrukaborden Auzi* honekin aztarrিকা nabilela, bidean bazterka-bazterka pilatu zaizkidan apunte batzuk. Patxadan leitzen eta oharrak hartzen hainbeste ordu pasa ondoren, pena ematen baitu gero dena bazterrean utzi beharrak. Hara testiguen aldi aldika esandako kontuetatik, poliskoena, interesgarrienak, edo behintzat niri atentzioa deitu eta jaso ditudan batzuk, neregisa sailkatu eta moldatuak:

NOLA MARKATZEN ZEN BORDAK NON EGIN

Beti gertatu ohi den bezala, badirudi, herrigizonekin ongi samar moldatzen zenak, aise eskuratzen zuela ardiborda egiteko baimena. Eta ez hori bakarrik: noskixego ere, herrigizonak edo errexidoreak hagitz pozik ibiltzen omen zirela bordak egiteko lekua markatzen, bakoitzak launa pezeta eta gainera bazkari eder bana irabazten omen zutelakotz³²: “a quatro pesetas cada uno y comida”. Eta horregatik, non eskatu han ematen omen zutela edozein ardiborda egiteko lekua, inorekiko miramenturik gabe, eta ez omen zuela peritoak deus markatzen, zenbait testiguk uste bezala³³:

... Que en Goizueta *para señalamiento* de sitios para *Arrucabordas* no se nombran ni se han nombrado jamas *peritos*, como lo suponen los contrarios.

Baizik eta beti bertako zinegotziek markatzen dituztela, eta hauei bai, lau errexidoreei, eman egiten diela “los vecinos agraciados su propina que es de quatro pesetas a cada uno y comida también”. Badirudi arrazoi pittinen bat bazutela, atarramentu hau salatzen zutenek. Launa pezeta, eta bazkari eder bana, ez baitzen batere mahuka motxa izanen garai hartan, Herriko diru kontuetara beharrean nork bere poltsera sartzeko.

³² Ibidem, 61 orrian.

³³ Ibidem.

BORDAK NON ERAIKI ZITEZKEEN, ETA NON EZ

Itiluak Alkaintzin aldeko artzaien artean bakarrik sortu baziren ere, ar diborden egoera: egindakoena, egiteko zaudenena, eta eskatu eta ukatutako ena, edo lekuz aldatutakoena, Goizuetako auzo guzietara zabaldu zen. Hara zer dion laugarren puntuan, Olasoko nagusi Juan Bautista Uitzik:

